

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

VITORIA-GASTEIZKO UDALA

HERRITARREN PARTAIDETZAREN, GARDENTASUNAREN ETA GIZARTE ETXEEN SAILA

Herritarren Partaidetza

Berraztertze errekurtsoak ebaztea, eta horren ondorioz aldatzea elkarten etxeetako udal lokalak egoitza gisa erabiltzen uzteko eta bertako armairuak esleitzeko deialdi publikoaren ebazpena

Lehena. Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 24an egindako ohiko bilkuran, Simone de Beauvoir, Rogelia de Álvaro eta Itziar elkarten etxeetako lokalak egoitza gisa erabiltzen uzteko eta bertako armairuak esleitzeko deialdi publikoa ebatzi zuen.

Elkarten etxeetako armairutxoak erabiltzeko hiru baimen eta 26 espazioak erabiltzeko 59 baimen eman zirenez, elkarte askok partekatu egin behar dituzte espazio horiek.

Bigarrena: Baimentzeko ebazpena horretarako emandako epean jakinarazi delarik, hainbat elkarte aldaketak eskatu dituzte – horretarako eskubidea dute –, funtsean espazioak partekatze orduan dituzten baterazintasunak direla eta. Lokala aldatzeko eskaera bat (mugikortasun arazoengatik), uko bat eta berraztertze errekurtso formal bi aurkeztu dira. Eskaera, uko-egite eta errekurtso horiek direla eta, aretoak edo espazioak aldatzeko proposamena egin behar izan da, eta horrek berekin ekarri du Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 22an hartutako erabakia aldatzeko beharra.

Hirugarrena: 2020ko ekainaren 24ko txosten teknikoan jaso dira, zehaztasunez, uko egitearen eta espazioak partekatzeko ezintasunaren arrazoiak eta errekurtsoen alegazioak. Hau da:

- Gasteizko argazkilarien FotoGasteiz elkarteak (G01561869) uko egin dio, bere borondatez, espazioa erabiltzeko baimenari, ez baitu eskaini zaion aretoa bere jarduerarako egokitzat jotzen.
- Arabako Abesbatzen Elkarteak (G01051499) egindako idazkian, Itziar Elkarten Etxeko 0.3b aretoan jarraitzeko eskea egiten du, bi kidek duten mugikortasun-arazoa dela eta (areto horretan daude 2015etik). Otsailaren 21ean jakinarazitako baimenaren arabera, Itziar elkarten etxeko lehen solairuko areto bat zegokien, eta ez dago igogailurik. Hori dela eta, zerbitzu teknikoek eskaera bideragarritzat jo dute.
- AMAPASE elkarteak (G01284546) berraztertze errekurtsoa aurkeztu zuen 2020ko otsailaren 7an, aretoa berarentzat bakarrik izatea eskatzeko. Elkartearen beraren dinamikan oinarritzen du eskaera, hain zuzen ere krisi- eta haustura-prozesuetan dauden familiekin esku hartzen baitute. Hori dela eta, pribatutasun-baldintza egokiak dituen espazioa behar dute, maiz gertatzen diren arazoak direla eta (genero-indarkeria, besteak beste).

Alegazio horiek kontuan hartuta, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikariek honakoa jakinarazi dute:

Lau urtean behin deialdi berria egin ohi da, baldintzak betetzen dituzten eta lokal baten beharra justifikatzen duen jarduera-proiektu bat aurkezten duten elkarte eta fundazio guztiek parte hartu ahal izateko.

Elkarteek baldintza beretan parte hartzen dute deialdietan, ez baita merezimendutzat jotzen elkarten etxeetan izan dezaketen antzinasuna.

Deialdi honetara aurkeztutako eskabideak balioetsi ondoren, guztiei erantzuna eman nahi izan zaie, eta lortu egin da proposatutako areto-banaketaekin.

AMAPASE elkarteak errekurtsioan adierazitako arrazoiak kontuan hartuta, baliteke zenbait elkartek deialdian parte hartu ez izana, eskaintzen diren espazioak beren beharretara egokitzen ez direla usteagatik, batez ere aretoaren eskusibotasun eta pribatutasunari dagokienez. Aretoa esleitu zitzaizen erakunde batzuek uko egin diote egokitzat ez jotzeagatik, eta aldian behin erabiltzeko aukeraren alde egin dute.

Edonola ere, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzua lanean ari da elkarte berriak edo aldaketak sartzeko, beti ere, eta ahal den neurrian, entitateen beharrei erantzuten saiatuz.

Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikariek aldaketaren aldeko txostena egin dute, eta erabilera eskusiborako areto bat baimendu, jarduera sozialak eskatzen duen intimitate-arrazoiak tarteko erabiltzeko.

- Ateneo Republicano elkarteak (G01574342) berraztertzeo errekurtsioa aurkeztu zuen 2020ko urtarrilaren 30ean, eta bertan Rogelia de Álvaro esleitu zitzaizen aretoaren ordeztu Simone de Beauvoirreko bat eskatzen zuten, hirigunearen erdialdean egoteagatik. Aldaketa eskatzeko zio gisa, aretoa txikia dela eta elkartearen dinamika erabiltzen dituzte, izan ere dinamika horren ezaugarri dira pertsona talde anitzen arteko komunikazioa eta harremana (emakumeak, memoria historikoa, herritartasun baloreak eta errepublika). Elkarteak adierazten duenez, Rogelia de Álvaro aretoaren kokapenak ez du herritarrek jardueretan parte hartzea eta hurbileko arreta errazten, urruti dagoelako eta zehazten ez dituen beste zailtasun batzuk daudelako.

Errekurtsio horren haritik, honakoa jakinarazi dute Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuko teknikariek:

Deialdiaren oinarrietan xedatzen denez eskaintzen diren aretoak banaka nahiz beste elkarte batzuekin batera erabil daitezke, beharrene edo jarduerarekin lotutako beste aldagai batzuen arabera. Deialdiaren oinarrien 3. eranskinean eta bi elkarteek areto-beharrene justifikazioan adierazitako beharrak aztertu ondoren, organo instrukzio-egileak uste du AMAPASE elkartearen eta Ateneo Republicano elkartearen jarduera eta ordutegiak bateragarriak izan daitezkeela, bataren eta bestearen jarduerak astean ordu betez edo biz bakarrik izango baitira ordu berean.

Bestalde, efizientzia arrazoiak tarteko eta elkartearen etxeak baliabide gisa behar bezala kudeatzeko, udalak ez die aretoen erabilera eskusiboa baimenduko astean behin edo bitan erabiltzeko eskaera egin duten elkarteek; izan ere, elkarteek aldian behineko erabilerako aukera dute egoera horietan.

Aretoen neurri eta kokapenari dagokienez, Rogelia de Álvaro eta Itziar elkartearen etxeetako aretoek 60 metro koadroko azalera dute, eta Simone de Beauvoirrekoek, berriz, 10 eta 15 metro koadro artekoa, eta elkartearen etxe guztiak hiriaren erdialdetik 2 kilometrora daude, gehienez, Espainia plazatik abiatuta.

Horrenbestez, Herritarren Partaidetzaren zerbitzu teknikoek errekurtsioa ezestea proposatu dute, azaldutako zioek ez baitute aldaketaren egokitasunik eta beharrik adierazten.

Elkarteek aretoak partekatzeo dituzten baterazintasun-arazoak direla eta, hainbat doiketa egin behar izan dira, eta elkarte hauei eragin die:

- Haaly Pular Vitoria-Gasteiz (G01513308) eta Arabako Pentsionistak Lanean (G01496868) elkarteak. Ez dira bateragarriak ez elkartearen jarduerak, ez batzuen bulego-orduak eta beste biltzarrek (hurrenez hurrez); ezta elkartearen ordutegiak ere.

- ASVE - Asociación Solidaridad Vasco Ecuatoriana (G01387141) eta ACCEM (G79963237) elkarteak. Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuarekin egindako bileran, aretoa partekatzeo zitu zten zailtasunak azaldu zituzten. Lan-ordutegia eta jarduera partekatzen dute: ahultasun-egoeran dauden pertsonen arreta pertsonala eta osoa ematea. Hori guztia aztertutik, bi elkarte horiek banatzea proposatzen da. ACCEM elkarteak beste bi elkarerekin partekatzen duen aretoa egokitzeo izan badu ere, ASVE elkarteak areto eskusiboa izango du datozen asteetan.

Laugarrena: Martxoaren 15etik pairatutako osasun-larrialdiak eta horren ondorioz administrazio-epaiek eten izanak berekin ekarri du arestian adierazitako guztiaren ebazpena etetea, hirugarrenei kalterik ez eragiteko. Epaiek berrabiarazi direlarik eta bizi dugun deseskalatze-egoera honetan, elkarteek espazioak erabiltzea eskatu dute, jarduerari ekiteko, osasun-ohararazpen eta -neurriak hartuz, faseak eta egoerak kontuan hartuta.

Azaldutakoa ikusita, eta Toki Erakundearen Ondasunen Araudia onartzen duen ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuan araututakoa –Herri Administrazioen Ondareari buruzko 33/2003 Legean jasoa– kontuan hartuta, Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzi ordezkariak honako hau igortzen dio Tokiko Gobernu Batzarrari:

Erabaki-proposamena

Lehena: Onestea Gasteizko argazkilarien FotoGasteiz elkarteak (G01561869) aretoa erabiltzeko baimenari borondatez egindako ukoa, eskainitakoa bere jarduerarako balio ez zuela iritzi baitzuen.

Bigarrena: Onestea Arabako Abesbatzen Elkarteak (G01051499) egindako eskaera, zein Itziar Elkartearen Etxeko 0.3b aretoan jarraitzeko baita, bi kidek duten mugikortasun-arazoa dela eta (areto horretan daude 2015etik).

Hirugarrena: Onestea AMAPASE elkarteak (G01284546) egindako eskaera, eta erabilera esklusiborako areto bat baimentzea, jarduera sozialak eskatzen duen intimitate-arrazoia tarteko erabiltzeko.

Laugarrena: Ezezte Ateneo Republicano elkarteak (G01574342) egindako eskaera, azaldutako zioek ez baitute aldaketaren egokitasunik eta beharrik adierazten.

Bosgarrena: Onestea Haaly Pular Vitoria-Gasteiz elkarteak (G01513308) eta Arabako Pensionistak Lanean (G01496868) elkarteak zein ASVE - Asociación Solidaridad Vasco Ecuatoriana (G01387141) eta ACCEM (G79963237) elkarteek adierazitako jarduera- eta ordutegi-bateraezintasun arazoak.

Seigarrena: Adierazitakoaren ondorioz, beste elkarte batzuen kokalekua ere aldatu behar da, eta, horrenbestez, aldatu egin behar da Tokiko Gobernu Batzarrak 2020ko urtarrilaren 24an emandako ebazpena, zeinaren bidez elkartearen etxeetako aretoak erabiltzeko baimenak eman eta armairutxoak esleitzen ziren bi urterako – 2020ko urtarrilaren 1etik kontatuta eta beste bi urtez luzatzeko aukerarekin–, egindako proposamen teknikoarekin bat etorritik (ebazpen honen eranskinean zehaztu da).

Oinarrien 12. puntuan –elkartearen etxeak erabiltzeko baldintzak – ezarritako baldintzetan ematen dira baimenak.

Elkartearen etxeetako lokalak eta armairuak erabiltzeko baimena lortzen duten erakundeek bertako “erabilera eta elkarbizitza arauak” bete beharko dituzte –Partaidetzaren, Gardentasunaren eta Gizarte Etxeen Saileko zinegotzi ordezkariaren ebazpen bidez onetsiak–, Administrazio Publikoaren Ondareari buruzko azaroaren 3ko 33/2003 Legearen 92. artikuluko 7. idatz-zatian ezarritako betebeharez gain.

Baimena doakoa izango da, eta ez da bermerik aurkeztu beharrik izango.

Udalari dagokio lokala onik zaintzea, eta hobekuntza edo aldaketak egitea. Halakorik behar izanez gero, eskabide arrazoitua egin beharko da, eta aurreikusitako diru-kopurua adierazi. Udalak, Herritarren Partaidetzaren Zerbitzuak hala proposaturik, bideragarritasuna aztertuko du, eta garaiz eta idatziz erantzungo, horiek gauzatzetik dagoen, baita ekimenaren ondorio ekonomikoak ere. Edonola ere, ez da baimenduko eraikinean edo bertako edozein gelatan obrarik egitea, ez bada Udalak berariazko baimen idatzia emanda.

Erakundeek onik eta txukun zaindu beharko dituzte lokalak. Jaso zuten egoera berean itzuli beharko dute lokala, hura erabiltzeko aldia bukatzen delarik.

Erabilera-baimena edo lagapena zergetatik —OHZ, zaborrak— salbuetsita egongo da, eta argindar- nahiz gas-kontsumoa Udalaren kontura izango da, baita ur-kontsumoa ere.

Erakundeek beren gain hartzen dute ondasunaren erabilerak edo bertan egiten diren jarduerak behar lituzketen lizentzia eta baimenak aurretiaz eskuratzeko ardura.

Erakundeek beren gain hartu beharko dute lokala okupatzearen ondoriozko erantzukizuna, eta beren jarduerak hirugarrenei eragin liezazkiekeen kalteen aurrean erantzun. Lokala erabiltzeko baimena ematera mugatzen da Udala, eta ez du egite edo ez-egitearen ondorioz lokalean gerta litekeen kalte material edo pertsonalen gaineko erantzukizunik bere gain hartuko, ez zuzenean ez modu subsidiarioan, elkarteari baitagokio erantzukizun zibileko aseguruak kontratatzea, eta baimenak iraun bitartean indarrean edukitzea. Gasteizko Udalak aseguruak gehigarriaren izaera izango du, horregatik hirugarrenaren izaera galdu gabe.

Erakundeak Herritarren Partaidetzaren Zerbitzura bidali behar ditu kontratatutako aseguruak kopiak, horien eguneraketarenak barne, eta dagozkion ordainketa-egiaztagirien kopiak.

Elkarteen Erregistro Orokorrean inskribatuta egon gabe erabilera komuneko aretoetara sartzen diren kolektibo eta plataformak izango dira horiei egotz dakizkiekeen arrazoen edo hirugarrenen aurrean hartutako betebeharren erantzule, Euskadiko elkarteei buruzko ekainaren 22ko 7/2007 Legaren 13. artikuluan xedatutakoarekin bat.

Inolaz ere ezingo diote baimendutako erakundeek berek hartutako lekua beste inori alokatu edo utzi. Ezta irabazi-asmoz erabili ere.

Erakundeak jakitun dira eta onartu egin beharko dute Gasteizko Udalak eskubidea duela lagapena bere kabuz baliogabetzeko, interes publikoa dela kausa, Administrazio Publikoen Ondarearen 33/2003 Legaren 92.4 artikuluan araututako kasuetan, eta ez duela horregatik ordainsaririk eman beharrik.

Baimendutako lokala ikuskatzeko eskubidea izango du Gasteizko Udalak, baimenean zehaztutakoaren arabera erabiltzen dela bermatzeko.

Administrazio Publikoen Ondarearen azaroaren 3ko 33/2003 Legaren 92.7 artikuluan jasotako gainerako betebeharrak.

Hamargarrena: Elkarte interesdun guztiei ebazpen honen berri ematea oinarri orokorrean adierazitako moduan. Administrazio-bideari bukaera ematen diolarik, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa bakarrik aurkeztu ahalko da berorren kontra, zuzenean Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako Epaitegian, bi hilabeteko epean, ebazpen hau ALHAOn argitaratzen den egunaren biharamunetik.

Vitoria-Gasteizen, 2020ko ekainaren 23an

*Herritarren Partaidetzaren, Gardentasunaren eta
Gizarte Etxeen Saileko Administrazio Zerbitzuko burua
MARILÓ MOVILLA RIVAS*

ERANSKINA

ELKARTEA	ETXEA	GELA	PUNTUAZIOA
ACCEM	Simone de Beauvoir	4.9	56
ADPA-ADBE, asociación para la defensa y protección de los animales	Rogelia de Álvaro	C-0.4	48,1
AFANIS	Simone de Beauvoir	3.3	47,4
ALCONDES, asociación de ayuda a personas en situación de exclusión en Euskadi	Rogelia de Álvaro	A-0.1	32,5
AMAPASE	Rogelia de Álvaro	A-0.2	62
APREJUAL, asociación de prejubilados y jubilados, no voluntarios de Álava	Simone de Beauvoir	4.7	51,35
Arabagara, euskaldunon elkargunea	Simone de Beauvoir	4.9	61,8
Arabako eskaut taldea	Itziar	0.2	33,15
Arabako pentsionistak lanean	Simone de Beauvoir	3.4	68,9
Aranako eskaut taldea	Itziar	0.2	31,8
Asociación ASVE – solidaridad vasco ecuatoriana	Simone de Beauvoir	4.5	66
Asociación Ateneo republicano de Álava	Rogelia de Álvaro	A-0.1	36,4
Asociación Awake gasteiz	Simone de Beauvoir	4.7	40,2
Asociación Colombia-Euskadi	Rogelia de Álvaro	A-1.1	60
Asociación cultural África Euskadi	Itziar	1.3	52,8
Asociación de cooperación Azanea África	Itziar	1.3	53,95
Asociación de mujeres en la diversidad – Emakumeak anistasunean	Rogelia de Álvaro	A-1.2	69,6
Asociación emigrados sin fronteras	Rogelia de Álvaro	C-0.1	39,5
Asociación folclórica de txistu Naizarai	Itziar	0.2	20
Asociación Kokuk	Itziar	1.1	46
Asociación sanitaria vasca “Enfermeros del Sahara”	Itziar	1.2	36
ASOVELANA, asociación de venezolanos en Álava	Itziar	1.3	26,65
ATEA, asociación para un trato ético con los animales	Rogelia de Álvaro	C-0.1	60
AVAIM, asociación vasca para la ayuda a la infancia maltratada	Itziar	1.4	56,4
AYAM, asociación yoga autoconocimiento meditación	Itziar	1.4	36,4
Bai euskarari ziurtagiriaren sustapenerako elkarteak	Rogelia de Álvaro	A-1.1	58
Banco del tiempo Caminando por las estrellas Vitoria-Gasteiz	Rogelia de Álvaro	C-1.2	54,6
Besartean, asociación de apoyo a la crianza	Simone de Beauvoir	4.10	55,8
Ceiba, asociación cultural ecuato-guineana	Itziar	1.2	11,7
Coordinadora de ONG de Euskadi – GGKE elkarteak	Simone de Beauvoir	3.1	84,6
Ekologistak martxan Araba	Rogelia de Álvaro	C-0.2	71,5
Eoncult asociación cultural	Itziar	0.4	39,65
Federación alavesa de coros	Itziar	0,3b	46,8
Federación de asociaciones Gauekoak	Itziar	1.1	53,5
Forum feminista María de Maeztu	Simone de Beauvoir	3.3	62,5
Fundación Mundubat	Simone de Beauvoir	4.8	49,5
GADEN, grupo alavés de defensa y estudio de la naturaleza	Rogelia de Álvaro	C-0.1	63
Gasteizko bizikleteroak – Ciclistas urbanos de Vitoria-Gasteiz	Rogelia de Álvaro	C-0.2	72,6
Gaubela, asociación de patinadores de Vitoria-Gasteiz	Rogelia de Álvaro	A-1.3	32,4
Geu, Gasteizko euskalduna elkarteak	Rogelia de Álvaro	C-1.1	67,5
Goizargi emakumeen elkarteak	Itziar	0.4	31,2
Grupo Lobo Euskadi	Rogelia de Álvaro	C-0.2	65,65
Gure soroa	Itziar	0.4	42,9
Haaly Pular Vitoria-Gasteiz	Rogelia de Álvaro	A-1.3	54
Harresiak apurtuz, coordinadora de ONG de Euskadi de apoyo a inmigrantes	Simone de Beauvoir	4.6	73,2
Haurralde fundazioa	Simone de Beauvoir	4.10	50,5
Ikbal Masih, solidarios sin fronteras	Itziar	1.4	38,35
Iturri gorri elkarlan	Itziar	1.2	62,4
La cuadrí Gasteiz, asociación para la ayuda a personas con problemas de soledad	Simone de Beauvoir	3.4	21,45
Martin Ttipia kultur elkarteak	Simone de Beauvoir	3.3	30,55

ELKARTEA	ETXEA	GELA	PUNTUAZIOA
Mugarik gabe	Itziar	0.1	58,5
Nazioarteko elkartasuna - Solidaridad internacional	Rogelia de Álvaro	A-1.3	53
Por una vida digna - Bizitza duinaren alde	Simone de Beauvoir	4.7	59,15
Slow food – Convivium Araba-Álava	Simone de Beauvoir	4.6	57,6
Sociedad astronómica de Álava	Simone de Beauvoir	4.8	46,8
Tdex-Almendra medieval, asociación para la difusión del conocimiento	Simone de Beauvoir	4.8	44,2
Ume alaia Araba	Simone de Beauvoir	4.9	45,5
Urteder, asociación gerontológica	Simone de Beauvoir	4.10	19,5